

HAUR ETA GAZTETXOEN LITERATUR LEHIAKETA 1998



Sari banaketa ekitaldia (1998-XII-11). Ezkerretik eskuinera, atzeko lerroa: Lander Zurutuza liburuzaina, Naiara Arteaga, Mikel Arrizabalaga alkate jauna, Patri Urkizu idazlea eta Jone Salaberria kultura batzordeko lehendakaria. Aurreko lerroa: Sandra Pinto, Garazi Ugalde, Oier Salaberria eta Eneritz Arruti. (Argazkia: Valentin)

L

ezoko udal liburutegiak haur eta gaztetxoentzat antolatutako literatur lehiaketako azken ediziora 217 idazlan aurkeztu ziren: 56 olerki (6-8 urte/24. 9-11 urte/32), eta 161 ipuin (6-8 urte/98. 9-11 urte/61. 12-14 urte/2).

Ondoren, irabazleen zerrenda duzu, eta saritutako lanak.

"V. JON GARBIZU OLERKI SARIAK" (1998)

- (6-8 urte) Sandra Pinto Paule: "Hortik kanpora".
- (9-11 urte) Garazi Ugalde Pikabea: "Olentzerori".
- (12-14 urte) EZ ZEN LANIK AURKEZTU.

"V. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK" (1998)

- (6-8 urte) Eneritz Arruti Osanbela: "Hamar eskuko ilargia".
- (9-11 urte) Oier Salaberria Treku: "Mikel eta Joneren txakurra".
- (12-14 urte) Naiara Arteaga Taberna: "Jon eta Ainhoa".

HORTIK KANPORA

Goian zerua
behean lurra.

Goian txoria
behean pertsona.

SANDRA PINTO PAULE

OLENTZERORI

Gabonak iristen ari dira,
hotza da nagusi,
Olentzero prestatzen ari da
egun berezirako, noski.

Gure Olentzero tripontzi!
ekarri opari ugari,
baina ez gehiegi,
besteak ere ez itzazu ahantzi.

Hondamendia izan da Ertamerikan,
han ere bizi dira haurrak.
Eraman hara opari onenak,
eta ez ahaztu, etorri gero bueltan.

Bidaia luzearen ondoren
edukiko duzu goserik.
Etorri nere etxera,
izango duzu zer janik.

GARAZI UGALDE PIKABEA

HAMAR ESKUKO ILARGIA

Orain dela urte asko Nitsi izeneko neska polit bat bizi zen. Hamar urte zituen eta gauero galdetzen zuen Nitsik:

- Nolakoa da ilargia? Hamar esku dituela dirudi -Nitsi horrekin liluratuta zegoen.

Egun batean dudan jarri zen.

- Hamar edo bi esku ditu ilargiak?

Hurrengo gaua iritsi eta Nitsi ilargira joan zen. Ilargian aztarna bat aurkitu zuen, gizaki batena gainera:

- Ba al dago bizitarik hemen?

- Planeta bat al da hau?

Dena ikertu ondoren ikusi zuen ezetz. Baina ikusi zuen ere ilargia satelite bat zela. Hala eta guztiz ere duda hor zegoen.

Bapatean... Ahots bat entzun zuen:

- Nor da?

- Ni naiz ilargia, nere laguna izan nahi duzu?

- Ilargia! Galdera bat egin nahi dizut!

- Galdetu ba!

- Hamar edo bi esku dituzu?

- Egia esango dizut, hamar esku ditut.

- Eskerrik asko beti duda hori izan dut eta orain lasai-lasai gelditu naiz.

Eta poz-pez bukatu zuten espazioan.

Eta hala bada edo ez bada sar dadila kalabazan, eta atera dadila Lezoko plazan.

ENERITZ ARRUTI OSANBELA

MIKEL ETA JONEREN TXAKURRA

Gaueko bederatzia ziren. Mikel eta Jone etxean sartu zirenean ama afaria prestatzen ari zen. Sukaldeko atean Jone azaldu zen baina Mikel ez.

- Mikel ez al da zurekin etorri? -esan zuen amak.

- Bai, baina...

- Zer gertatzen da? Zerbait pasa al da? -galdetu zuen amak kezkatuik.

- Ez, ez, ama.

Orduan Mikel azaldu zen gorri-gorri eginda, txamarra barruan zerbait ezkutatu.

- Zer daukazu hor gordeta?

- Ba... txakur txiki bat, ama.

- Txakur bat! Mila aldiz esan dizut ez dudala etxe barruan txakurrik ikusi nahi, eraman ezazu lehenbailehen hemendik.

Amak lanak egiten jarraitu zuen eta handik pixka batera Mikelen gelara joan zen, baina Jone bakarrik zegoen eta galdetu zion amak:

- Jone, non dago Mikel?

- Ez dakit ama, baina ohe gainean notatxo bat dago.

"AMA, ASKO SENTITZEN DUT, BAINA TXAKURTXOA EZIN DUT BAKARRIK UTZI. BOK GANBARAN GAUDE GAUA PASATZEKO ASMOTAN, EZ KEZKATU, ONDO GAUDE.

MIKEL"

Ama berehala igo zen ganbarara eta han aurkitu zituen Mikel eta txakurra zaku batean sartuta, esnea, ogia eta gazta jaten.

Pena handia hartu zuen bi haiek ganbaran ikusirik, txakurtxo onartuko zuela esan zion Mikeli.

Denak batera jaitsi ziren eta txakurra oraindik han bizi da.

OIER SALABERRIA TREKU

JON ETA AINHOA

- Jon, begira zer egin duzun! -esan dio Ainhoak, haserre-. Galdu egin gara.

- Noski -esan du Jonek haserre bera ere-. Niri dena utzi didazu eta!

- Iluntzen ari da -esan du Ainhoak-. Non lo egingo dut?

- Dugu, esan nahiko duzu -esan du Jonek-. Ni ere zurekin bainago.

- Hara! Han ikusten dut leizezulo bat! Goazen bertara! -esan du Ainhoak.

Leizezuloan hamar ordu egon ondoren, kanpokaldea elurturik geratu dela ohartu da Ainhoa, eta Jonengana joan da, elkartu eta berotzeko.

- Zer dugu gosaltzeko? -galdetu du Ainhoak, gosez.

- Atzoko hondarrak -esan du Jonek.

- Nik txokolatzeko budina nahi dut...

- Ez, Ainhoa! Ez dakigu zenbat denboraz egongo garen hemen, egoera honetan! Janaria gorde behar dugu!

- Barkaidazu, Jon! Goseak eta irrikak bultza didate -esan du Ainhoak-. Lagunak?

- Ongi da -esan du Jonek-. Lagunak.

Handik bi ordura, gizon bat sartu da kobazuloan.

- Jon eta Ainhoa al zarete?

- Bai -esan du Jonek-. Nor zara zu?

- Ni, udaltzain bat naiz. Tira, zatozte! Goazen herrira!

Herrira iritsi zirenean, denek agurtu zituzten. Eta hain pozik zeuden, ze, festa bat egin zutela Jon eta Ainhoaren omenez.

NAIARA ARTEAGA TABERNA